

## 8 – LURRALDE PLAN SEKTORIALA BIDERATZEKO PROZEDURA

Euskadiko Lurralde Antolamendurako Legearen Lehen Xedapen Gehigarriak hau esaten du: *“Lurralde Plan Sektorialak organo eskudunek formulatu eta prestatuko dituzte, sektore legerian zehaztuta dagoen prozeduraren arabera, aplikatu badaiteke, behintzat. Eta hori ezin bada aplikatu, Lege honetan Lurralde Plan Partzialtarako zehaztu den prozedura jarraituko da”*. Adierazpen horretatik bi ondorio ateratzen dira: bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektoriala formulatzeko eta prestatzeko ardura duen organoa Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Saila da; eta bi, Plan hori onartzeko prozedura izango da LAELan Lurralde Plan Partzialentzat ezarritakoa.

Bestalde, LAELko 18. artikulua oinarritzko ildoak ezartzen ditu Lurralde Plan Sektorialak behin betiko onartzeko eta indarrean jartzeko. Horren arabera, Eusko Jaurlaritzako sailek formulatutako LPSen *“informazioa igorri beharko zaie Lurralde, Etxebizitza eta Ingurumen Sailari eta Lurralde Antolamenduko Batzordeari. Ondoren, sail interesdunak (kasu honetan, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak) eta Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko titularraren proposamen moduan, LPSak Gobernu Kontseiluari aurkeztuko zaizkio, aipatu informeeekin batera, behin betiko onar ditzan”*.

Zentzu honetan, aipatu artikuluko 2 zenbakiak honako hau dio: *“behin betiko onartze erabakia Dekretuz hartuko da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da”*.

Horrez gain, Legeko 17. artikulua dio Plana lantzeko ardura duen Administrazioak (kasu honetan, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak) Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailekin kontsultatuko duela, sektore plangintzaren xede diren obrak, jarduerak eta zerbitzuak zedarrizteko, indarrean dagoen lurralde antolamenduak eskaintzen dituen alternatiba, konponbide eta aukeren inguruan. Eta hori Lurralde Plan Sektoriala lurralde marko orokorrean egoki txertatzeko. Marko hori LAlek eta LLPeke zehazten dute.

Azkenik, LAELko 13. artikulua zehazten du zein prozedura jarraituko den Lurralde Plan Partzialak formulatzeko eta onartzeko. Prozedura hori analogikoki erabiliko da, gure kasuan, Lehen Xedapen Gehigarriaren arabera.

Hori guztia ikusita, hona hemen, eskema moduan, Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektoriala bideratzeko faseak eta jarduerak:

### **Plana egin aurreko jarduera**

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak, aldez aurretik, kontsulta egingo dio Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailari, jakiteko zein diren indarrean dagoen lurralde antolamenduak ematen dituen aukerak, instalazioak zedarritzeko (LAEL, 17. art.).

### **LPSaren Aurrerapena egitea**

Kontsulta horren ondoren, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak LPSaren Aurrerapena egingo du.

### **Lurralde Administrazio Publikoei entzutea**

LPSari hasierako onarpena eman aurretik, Aurrerapena Lurralde Administrazio interesdun guztietara igorriko da, handik bi hilabetera ohar, iradokizun, alternatiba eta proposamenak aditzera eman ditzaten.

### **Alegazioak aztertzea**

Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak alegazioak aztertuko ditu eta onartzen dituen ala ez erabaki.

### **LPSari hasierako onarpena ematea**

Behin proposamenak onartu eta Aurrerapena zuzenduta, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak Planari hasierako onarpena ematea proposatuko du. Proposamen horren berri nahitaez eman behar zaio Lurralde Antolamenduko Batzordeari.

### **Jendaurrean ezagutzera ematea**

Plana hasiera batean onartuta, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta bi hilabetez jendeari ezagutzera emango zaio.

### **Administrazioei entzutea**

Jendea informatzearekin batera, Lurralde Administrazio Publikoei entzun egingo zaie, hilabete bateko epean, beren iradokizunak adieraz ditzaten.

### **Behin-behineko onartzea**

Izapide horien emaitzak ikusita, behin-behineko onartuko da.

### **Lurralde Antolamenduko Batzordearen txostena**

Proposamena, espedientearekin batera, Lurralde Antolamenduko Batzordeari igorriko zaio, Batzordeak nahitaez egin behar baitu txostena.

### **Behin betiko onartzeko proposamena**

Behin txostena bideratuta, Batzordeak, espedientearekin batera, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailari igorriko dio, behin betiko onar dezan.

### **Behin betiko onartzea**

Eusko Jaurlaritzak Dekretuz onartuko du.

### **Behin betiko onarpena argitaratzea**

Behin betiko onarpena Buletin Ofizialetan eta Erkidegoan gehien irakurtzen diren egunkarietan argitaratuko da.